

ARGIA.EUS/LARRUN

IMMIGRAZIOAREN 22 MITO

(HEIN DE HAAS-EN LIBURU EZAGUNAREN LABURPENA)

A photograph showing the silhouettes of a group of people standing behind a chain-link fence. The background is a vibrant sunset or sunrise sky with warm orange and red tones. The fence is in the foreground, and the people are positioned behind it, some looking towards the camera and others looking away. The overall mood is somber and contemplative.

LARRUN #314

GEZURRAK ETA EGIAK

EGILEA | **XABIER LETONA**

AZALA | **IÑAKI LANDA**

Hein de Haas Herbeheretako ikerlariaren *How Migration Really Works* (Migrazioak benetan nola funtzionatzen duen) / *Los mitos de la inmigración. 22 falsos mantras sobre el tema que más nos divide* bertsioa erabili dugu lan honetarako. LARRUN honetan irakurleak ez du topatuko liburuak eskaintzen duen informazio uholdearen (500 orrialde) printza ñimiño bat baino. Egingo du topo, ordea, gure gizarteek immigrazioaren fenomenoari begiratzen dioten moduarekin, eraikitako ikuspegi oker eta interesatuekin, eta horiek deseraikitzeo ikuspegi eta argudioekin.

Modu orokor batean begiratuta, gaiak dituen printza nagusien erakusle da liburuak. Mezu nagusietakoa da gaingitu behar dela immigrazioaren alde/kontra diskurtsoa, immigrazioa mundu modernoaren fenomeno ekonomiko, soziala eta kulturala delako, ikertu

eta ulertu beharrekoa, ondoren beharrezko neurriak hobeto hartzeko. Ezin da kontrolatu immigrazioa nahieran, beraz, uler ditzagun bere egungo joerak eta ezaugarriak, eta hori onuragarria izango da guztiontzat, bai jatorrizko herrialdeentzat, bai harrerakoentzat.

Liburuak badu deserosotasun ukiturik hainbatetan, besteak beste, sustraituak ditugun hainbat ikuspegi zalantzan jartzen dizkigulako; izatekotan, alabaina, deserosotasun horretatik sortuko dira hausnarketa eta jokamolde berriak. Eta gainera, immigrazioaren gaia ezinbestean lotu behar dugu gizarteko gainerako gai garrantzitsuekin, Hein de Haasek dioskun moduan, azken finean: “Migrazioari buruzko egiazko edozein eztabaida, bizi nahi dugun gizarte horri buruzko eztabaida izango da”. Azken ohar bat: datozen orrialdeak lasai asko irakur daitezke mokoka, bakoitzari gehien interesatzen zaion atalaren arabera.

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2948 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAIALEN ARANA

2026ko urtarrilaren 25ean

1. MITOA: MIGRAZIOA BERE GORENEAN DAGO

Behin eta berriro entzuten dugu munduak inoizko emigrazio handienak bizi dituela. Muturreko pobrezia, gerrek, zapalkuntzak edota klima aldaketak eragindako migrazioak dira, eta horien ondorioz, herritarrek gero eta gehiago jotzen dute atzerriko herrialde oparagoetara. Horrek migrazio krisi larria eragin du, bereziki Hegotik Iparrera. ACNUR NBEko Errefuxiatuen Agentziaren gisako erakundeek ere kontakizun hori gizentzen dute eskaintzen dituzten datuekin. Erakunde horrek 2022an zabalduetako datuen arabera, “urte horretako 100 milioi pertsona desplazatuekin, migrazioak muga dramatikora iritsi dira, duela hamar-kada bat inork gutxik espero zuena”.

MITOA DESEGITEN

Gaur egungo nazioarte mailako migrazioak ez dira oso handiak eta ez doaz goraka. Gutxi gorabehera, 1960tik eta 2017ra arte munduko populazioaren %3 mugitzen ari da nazioarte mailan. Epe motzean emandako migrazioek bai egin dute gora, tarte horretan hirukoiztu egin dira, baina mugimendu horien gehiengo handia landa gunetatik hirietara egindakoa da. Herrialde aberatsenetan lehenago gertatu da mugimendu hori eta orain herrialde pobretuetan gertatzen ari da. Hau da, populazioaren %17 mugitu zen munduan 2020an, baina %13, herrialde mailan eta %3,3 herrialdeen artean; euren herrialdetik ateratzen den gehiengo inguruko herrialdeetara doa.

Egungo migrazio mugimenduak perspektiban jartzeko datu pare bat: 1846 eta 1940 artean Europako 150 milioi herritarrek kontinentea aldatu zuten, 1900. urteko datuetan, populazioaren %9 zen hori. Badirudi migrazio handieneko garaia XIX. mende bukaera eta XX.aren hasie-

rakoa izan zela, orduan gertatu zen migrazio transatlantikoaren une go-rena, eta dozenaka milioi europar atera ziren Ameriketara. Kopuruez gain, zein izan da aldaketarik handiena sasoi hartatik gaur egunera? Europako Mendebaldea migratzaileak igortzetik jasotzera igaro dela. Bigarren Mundu Gerraren ondoren Europan sortutako ongizate estatua-ren ondorioz, bertako herritarrek ez zuten ateratzeko beharrik izan eta,

aldiz, atzerriko asko etortzen hasi ziren. Ez da egia nazioarteko migrazioek gorako joera dutela eta, izatekotan, alderantzizkoa izan daiteke, mundu mailan mugikortasunak jais-terko joera duelako.

2. MITOA: MUGAK DESKONTROLATUTA DAUDE

Emigrazioa gorakada handia izaten ari da eta mugak deskontrolatuta



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA


daude. Migratzaileak desesperatuta daude. Immigrazio trafikatzaileak ere etorkinen egoera larria baliatzen ari dira mugak legez kanpo zeharkatzeko. Hedabideetatik jasotzen dugunak ere ikuspegi hori elikatzen du: “immigrazio masiboa”, “exodoa”, “inbasioa”. Egoera horiek ez dira konponduko jatorrizko herrialdeetako pobrezia eta gatazkak konpontzen ez badira, bestela Hegotik Iparrera-ko immigrazioak handitzen jarraituko du, eta bereziki legez kanpokoak.

MITOA DESEGITEN

Azken hamarkadetan Europako eta Ipar Amerikako herrialdeetan immigrazioa handitu egin da, eta herrialde horiek batez ere europarrak ez diren pertsonak jasotzen dituzte. Alabaina, herritarren gehiengoak uste duenaren aurka, Hegotik Iparrera doazen immigrante horien gehiengo oso handia legez iristen da herrialde hartzaileetara, pasaportea eta bisa eskuan. Datuen arabera, azken hamarkadetan legez kanpoko immigrazioa askoz handiagoa da AEBetan Europan baino. AEBetan, 1990 eta 2020 artean hegoaldeko mugan batez beste milioitik gora atxiloteta izan ziren urtean, sartu izan ziren 4,7 milioi pertsonaren ia laurdena (%23).

Europan kopuruak askoz txikiagoak dira: 1997tik 2020ra Italia, Espainia eta Maltara 64.600 pertsona sartu ziren Mediterraneoan legez kanpo gurutzatuta, eta tarte horretan EBtik kanpoko bi milioi immigrante iritsi ziren legez; hau da, legez kanpo sartutakoak %3-3,5 dira, AEBetan baino askoz gutxiago.

Legez sartzten diren pertsona horietako kopuru handi bat, halaber, harrerako gobernuak bultzatutako immigrazio politiken ondorioz dator: nagusiki nekazaritzan, meatzaritzan, osasungintzan, etxeko lanetan eta ostalaritzan lan egitera. Beraz, batetik, bada erretorika gogor bat immigratzaileen aurka, baina, beste-



tik, gobernuak neurri handi batean ezikusiarrena egiten dute legez kanpoko migrazioaren aurrean, eskulanaren beharrea direlako. Funtsean, lan merkatuek eskatzen dituzte legezko kanaletatik sartzten diren immigratzaileak baino kopuru handiagoak, eta orduan, sistemak berak bultzatzen ditu pertsona asko legez kanpo sartzera, eskulan eskaria dagoen bitartean immigrazioak sarrera moduak bilatzen dituelako.

3. MITOA: ERREFUXIATUEN KRISIARI AURRE EGIN BEHARREAN DA MUNDUA

Gerra eta gatazka gero eta gehiago dago eta, horren ondorioz, aurrerari gabeko errefuxiatu uholdeari egin behar dio aurre gure munduak. Errefuxiatuak hartzeari buruzko de-

bateak 2015ean jo zuen goia, milioi bat errefuxiatu siriarrak Europan jo zuenean babes eske. Hego Amerikako eta Erdialdeko Amerika herrialdeetatik, Mexiko gurutzatuta biolentziatik ihesi doaz milaka lagun AEBetara. Eta Europan, 2022ko martxotik milioika ukrainar errefuxiatuak ihes egin zuen ondoko herrialdeetara eta Europako mendebaldera.

Errefuxiatuei harrera egiteko sistema NBEko Errefuxiatuen Estatutuko Hitzarmena da, Bigarren Mundu Gerrak sortutako errefuxiatu olatuei aurre egiteko eraiki zena. Aspalditik, baina, Mendebaldeko agintarien ustez sistema hori zaharkitua dago eta berri behar da, Mendebaldeko herrialdeetan euren burua errefuxiatu gisa aurkezten duten asko ez direlako egiazki errefuxiatuak, migratzaile ekonomikoak baizik. Frantziako lehen ministro Michel Rocard-en 1989ko esaldi hau oso ezaguna egin zen: “Frantziak ezin dio harrera egin munduko miseria guztiari”.

Eta asilo eskaeretan iruzurra dagoenez, estatuak erantzun behar diote horri moduren batean. Erantzun horren aitzindaria izan zen Australiako ministro laborista Kevin Rudd, 2013an Ozeano Bareko Manus eta Nauru irletara bidali zituen babes eske ari ziren errefuxiatuak, euren eskaerak aztertu arte han gera zitezten. Geroago, Greziak antzera egin zuen errefuxiatuak Lesbos moduko uharteetan bilduta. Donald Trump AEBetako lehendakariak “Gelditu zaitez Mexikon” kanpaina abiarazi zuen, asilo eskatzailea Mexikon itxarotera behartzen duena bere eskaera erabaki arte. Eta berrikiago, Danimarkak eta Erresuma Batuak Ruarda bidali nahi izan dituzte asilo eskatzaileak.

MITOA DESEGITEN

Egiazki, immigrazio molde hau hedabideek eta gobernuak iradokitzen dutena baino txikiagoa da: 1950eko hamarkadatik gaurdaino errefuxiatu



DANI BLANCO CC BY SA

Immigratzaileak eskulan beharra dagoenean datoz, eta ez ongizate estatuak eskaintzen dituen abantailez baliatzera, sarritan zabaltzen den moduan.



GAUR EGUNGO NAZIOARTE MAILAKO MIGRAZIOAK EZ DIRA OSO HANDIAK ETA EZ DOAZ GORAKA. GUTXI GORABEHERA, 1960TIK ETA 2017RA ARTE MUNDUKO POPULAZIOAREN %3 MUGITZEN ARI DA NAZIOARTE MAILAN

kopurua munduko populazioaren %0,1 eta %0,35 artekoa izan da. Errefuxiatuena populazio migratzailearen zati bat besterik ez da: 1985etik eta 2021era munduko errefuxiatuen kopurua 9 eta 21 milioi artean mugitu zen. 1990ean munduko errefuxiatu kopuruak azkar egin zuen gora 16 milioi arte. Somalia, Kongoko Errepublikoa Demokratikoa, Ruanda, Burundi eta Jugoslavia ohiko gerra izan ziren horren arrazoi nagusia, baina 1993tik aurrera jaitsiera handia hasi zen eta 2000. urtean kopuru hori 9 milioira jaitsi zen. Eta berriz egin zuten gora 2005etik aurrera, besteak

beste, lehentxeago AEBek Irak eta Afganistan inbaditu zituztelako eta gatzaka horiek luzatzen ari zirelako.

Edozein modutan, errefuxiatuen egiazko krisiak batez ere gertatzen dira errefuxiatuak sortzen dituzten erregioetan. ACNUR NBEko Errefuxiatuen Agentziako datuen arabera, 2017an errefuxiatuen %80 bere sorterriaren inguruko herrialderen batean geratu zen eta mundu guztiko errefuxiatuen %85 garapenean dagoen herrialderen batean zegoen. Turkiak, adibidez, 2018an 3,6 milioi errefuxiatu jaso zituen, bere biztanleriaren %4,4. Libanok sei milioi biztanle zituen urte berean eta ia milioi bat errefuxiatu siriar jaso zituen. Urte horretan bertan Alemanian 532.000 siriar bizi ziren, 15.800 Frantzian eta 9.700 Erresuma Batuan. Funtsean, XX. mendeko lehen erdialdean askoz errefuxiatu gehiago egon ziren bigarren erdialdean eta egun baino, nagusiki mundu mailan askoz garai gatazkatsua izan zelako.

4. MITOA: GURE GIZARTEAK INOIZ BAINO ASKOTARIKOAGOAK DIRA.

Immigrazioaren ondorioz, gure Mendebaldeko gizarteak inoiz baino askotarikoagoak dira, etniari, kulturari

edota erlijioari dagokionez. Ikuspegi liberalak berrikuntza eta berriztatze kulturalarekin lotzen du pluraltasun hori; eta kontserbadorentzat, aldiz, harrerako herrialdeen kohesio sozialarekiko eta osotasun kulturalarekiko mehatxagarria da. Mendebaldeko Europan, adibidez, arazo gisa ikusten dira Pakistan, Bangladesh, Turkia eta Marokotik datozen immigrante taldeen integrazio zailtasunak. Hala-koen aurrean, gero eta gehiago, aditu eta politikari ugariak uste du askotarikotasun hori gainditzen ari dela harrera herrialdeek immigratzaileak hartzeko duten gaitasuna. Horren erakusgarri dira, esaterako, 2016an Theresa May Erresuma Batuko lehen ministroak egindako adierazpen hauek: “Immigrazioa gehiegi denean, aldaketaren erritmoa azkarregia denean, ezinezkoa da gizarte kohesio-natuak eraikitzea”.

MITOA DESEGITEN

Gurearen aurreko gizarteak guk uste duguna baino askoz askotarikoagoak ziren. Adibidez, 1910ean AEBetan 13,5 milioi etorkin bizi ziren (92 milioi pertsonatik), hori %14,6 zen eta gaur egun %14,5 da. Musulmanak eta latinoak dibertsitatearen eztabaida honen erdigunean dira hurrenez hurren Mendebaldeko Europan eta AEBetan, baina beste garai historiko batzuetan beste talde batzuk izan dira: Europan herri juduak eta erromaniak jazarriak izan dira historian; Alemanian poloniarren aurkako jarrera zegoen XIX. mendean, irlandar katolikoen aurkako jarrera luzea izan da Britainia Handian; zer esanik ez AEBetako azal gorrien, beltzen eta horien “mehatxuak”. XX. mende hasieran AEBetan alemaniar jatorrikoak ziren mehatxu, eta lehentxeago italiarrak. *New York Times* hala mintzo zen siziliarrei buruz 1891ko editorial batean: “Bidelapur eta hiltzaileen oinordeko dira” eta “atzerantz ezinezko plaga”. 1890 eta 1920 artean dokumentatuta daude

italiarren aurkako 50en bat lintxamendu publiko.

Egia zera da, ordea, gaur egungo gizarteak eta mundua gero eta uniformeagoak direla, besteak beste, estatuaren, hezkuntzaren, hedabideen eta Interneten eraginagatik. Homogeneizazio prozesu horrek estatu identitateak osatu ditu, baina aldi berean, talde eta lurralde askotako identitateak, ohiturak eta hizkuntzak zapaldu eta desagerrarazi ditu. Globalizazioaren ondorioz, uniformizazio hori gero eta zabalagoa da mundu osoan. Seguruenik, hizkuntza gutxituen desagertzea da fenomeno horren adierazleetakoa bat: Unescoren arabera,

1950 eta 2010 artean 230 hizkuntza desagertu ziren, eta munduan diren 7.100 hizkuntzetatik herenak 1.000 hiztun baino gutxiago ditu.

5. MITOA: HERRIALDE TXIROEN GARAPENAK MIGRAZIOA GUTXITUKO DU

Mugen kontrolak ez dituenek immigrazio kopuruak jaisten, sektore askok –politikariak, adituak, erakunde humanitarioak...– uste du jatorrizko herrialdeen pobrezia apaltzea eta haien garapena sustatzea direla handik datozen immigrante kopuruak gutxitzeko modurik egokiena. Jatorrizko herrialde askok ere bat egin



**BADA ERRETORIKA GOGOR
BAT IMMIGRATZAILEEN
AURKA, BAINA GOBERNUEK
NEURRI HANDI BATEAN
EZIKUSIARENA EGITEN
DUTE LEGEZ KANPOKO
MIGRAZIOAREN AURREAN,
ESKULANAREN BEHARREAN
DIRELAKO**



DOMENU PUBLIKOA

Estatuek jartzen dituzten hesiek bertan harrapatzen dituzte migratzaile asko, baina gehiengo handia legez sartzen da harrera herrialdeetara. Argazkian, Melillako hesia.

izan du ikuspegi horrekin, horrela garapenerako laguntza handiagoak jasoko dituztelakoan. Mugen krisi horiek eraginda, Afrikako herrialde ugari eskatu diete europar herrialdeei Afrikarentzat Marshall plana martxan jartzeko. Ameriketan ere antzerako errelatoak entzuten dira. Diskurtso horien azpian dagoen logika indartsua eta enpatikoa da: lagundu ditzagun herrialde txiroak, horrela hango herritarrek ez dute bidaia arriskutsurik egin beharko Ipar aberatsera iristeko.

MITOA DESEGITEN

Herrialde txiroak laguntzea eta horrela desberdintasunak gutxitzea eta herritarrak ez mugitu behar izatea ideia erakargarria da ezkerreko sektoreetan eta, oro har, aurrerakoietan. Alabaina, ikerketek, datuek eta egitateek erakusten dute justu alderantziz dela: herrialde txiroetako garapen ekonomikoak immigrazioa handitzen du, ez gutxitu. Gaur egungo mundu mailako migrazioa aztertuta, zalantzan jarri beharko genuke pobrezia dela Hegotik Iparrerako immigrazioaren eragile garrantzitsuenetakoa.

Batetik, egia da herrialdeen garapen ekonomiko epe luzera gero eta handiagoa izan, horrek immigratzaileak erakartzen dituela, bereziki horietan lan eskaria ere handitzen bada. Era berean, azken hamarkadetako ikerketek erakusten dute emigrazioa handitu egiten dela herrialde txiroak ekonomikoki hazi ahala, eta igoera hori bakarrik apaltzen dela herrialdea pasatzen denean batez besteko erdi mailako diru-sarreretatik goi mailako diru-sarreretara.

Funtsean, txiroa den jendeak nagusiki emigratzen du landa guneetatik hirietara (mundu mailako migratzaileen %80), eta gehien jota inguruko herrialdeetara; Ipar aberatseko herrialdeetara abiatzen da dagoeneko aurrezki batzuk bil-



ESTATU BATUTAKO GOBERNUA

AEBek Mexikoko mugan eraikitako hesiaren zati bat.

duta dituen herritarra edo familia, harrerako herrialdean berean baino bizitza hobea lortuko duen esperantzarekin. Egungo prozesu migratzaileak ulertzeko garapena ekonomikotik harago joan behar da, horiek munduan gertatzen ari diren prozesu sozial eta aldaketa kultural handiagoei lotuta baitaude.

6. MITOA: EMIGRAZIOA MISERIATIK IHES EGITEKO MODUA DA

Urtero milioika herritarri luzatzen zaien mezua da: utzi zuen herrialdeetako pobrezia eta jo Ipar aberatseko herrialdeetara, legez edo legez kanpo egindako bidaian. Egia, ordea, mezu horretatik oso urruti dago, eta El Dorado topatu beharrean, immigratzaileek egoera oso zailekin egiten dute topo, lanpostu eta etxebizitza txarrenekin. Eta sarritan, mezu hori luzatzen zaie emigratzaile potentzialei gobernuek bultzatutako kanpainetan: “Ez etorri, El Dorado hori gezurra da, gera zaitez zure familiarekin zure herrialdean”.

MITOA DESEGITEN

Migratzaileak ez dira lerdoak eta halakoak esaten dizkiezunean zera erantzuten dute: “Europar bizitza



MUGEN MILITARIZAZIOAK BEHARTZEN DITU ETORKINAK BIDAIA LUZEAGOAK, ARRISKITSUAGOAK ETA GARESTIAGOAK EGITERA, BAINA MIGRAZIO FLUXUEK EUREN BIDEAK TOPATZEN DITUZTE

horren txarra bada, zergatik exijitzen dira bisak eta zergatik eraikitzen dira harresiak?”. Duda barik, migratzaile askok oso egoera larriak bizi dituzte bidaian edo harrera lekuan, baina horiek ez dute ordezkatzeko gehienei gertatzen zaiena. Migrazioak, legez kanpokoa izanda ere, beren herrialdeetan irabaziko luketen dirua baino askoz gehiago irabaztea ahalbidetzen die herritarrei. Hedabideetatik kontrakoak saltzen bada ere, migratzea ez da desesperaziotik hartutako erabakia, ezpada ondo pentsatutakoa eta etorkizun hobea ekarriko duen esperantzarekin hartutakoa.

Ez hori bakarrik, migrazioa da garapenerako laguntzarik era-



LE_EITHNE

Europar Batasunaren Frontex agentzia eta gisako oztopoen ondorioz, izatekotan, harrera herrialdeetako etorkin kopuruak handitzea lortzen da, besteak beste, immigrazio zirkularra oztopatzen delako eta immigratzaileak gutxiago mugitzen direlako haien herrialdeetara.

ginkorra: Munduko Bankuaren datuetan, 1990ean migratzaileek 24.716 milioi euro bidali zituzten garapenean diren herrialdeetara, eta 2020an jadanik 427.853 milioi euro ziren. Garapenaren izenean estatuek herrialde horietara bidalita-koa baino 2,6 bider gehiago da hori. Areago, diru hori ez doa gobernu edo beste erakunde batzuetara, migratzaileen familietara baino, behar handiena duten herritarren artean banatzen da.

7. MITOA: EZ DUGU LANGILE MIGRATZAILERIK BEHAR

Bigarren Mundu Gerra eta gero Mendebaldeko herrialdeetan eskulan ez-kualifikatuaren behar handia izan zen eta horregatik etorri ziren milioika migratzaile, baina garai hori pasatu da. Gure ekonomia postindustrialean eskulan merkea aspaldi ari da jaisten me-

kanizazioa, automatizazioa eta externalizazioen ondorioz. Oraingo kontsentsu orokorra da gobernuak eskulan kualifikatua erakarri behar dutela, eta eskulan merkearen etorrera, aldiz, eragotzi.

MITOA DESEGITEN

Lan eskaria da migrazioen motorra. Mendebaldeko herrialdeetako herritarrek uste dute desberdintasun ekonomikoak direla migrazioen arrazoi nagusia eta mugak guztiz irekiko balituzkete etorkinen uholdea jasoko luketela. Baina kontu horiek ez dira horren automatikoak. Bestela, nola azaltzen da horren migrazio fluxu txikiak egotea herrialde txiroenen eta aberatsenen artean? Nola uler liteke munduan horren desberdintasun ekonomiko handiak izanda, populazioaren %3k bakarrik migratzea?

Jende askok emigratzen du uste duelako bere helburu profesiona-

lak hobeto beteko dituela beste herrialde batean, berean baino. Horrela uler liteke herrialde aberats batzuek ere emigrazio tasa handiak izatea. Adibidez, Alemanian jaiotako 3,9 milioi pertsona 2020an herrialdetik kanpo bizi ziren (Alemaniak dituen etorkinen herena), eta Erresuma Batuan jaiotako 4,7 milioi ere handik kanpo bizi ziren (dituen etorkinen erdia). Jendeak zenbat eta formazio maila handiagoa izan, bere lanbidean lan egiteko eta norabait mugitzeko gero eta aukera handiagoak ditu. Diskurtso gogorretatik harago, EBko herrialdeek gero eta etorkin gehiago hartzen dituzte: 2010etik 2019ra EBtik kanpo bertara iritsitako etorkinen kopurua hirukoiztu da, 375.000etik 1,2 milioira pasatu da. Gehienak langileak dira. Gure gizarte aberats, zaharkitu eta formazio handikoek langile migratzaileak behar dituzten eredu ekonomikoak garatu dituzte.

IMMIGRAZIOA: MEHATXU EDO IRTENBIDE?

8. MITOA.

ETORKINEK LANPOSTUAK LAPURTZEN DITUZTE ETA LANSARIAK JAISTEN DITUZTE

Etorkinak ordu gehiago sartzeko eta merkeago lan egiteko prest direnez, immigrazioak soldatak jaitsarazten ditu eta bertako langileen lan segurtasuna jaisten du. Hau da, immigrazioak lehia egiten die bertako langileei, haien lanpostu egonkorretatik kanporatzen ditu eta lan baldintza eskasagoak onartzera behartzen ditu.

Itxuraz argudioak badu indarra, baina errealitatea korapilatsuagoa da. 1980 eta 2020 artean produktibitatea asko handitu da, baina langileen gehiengoari ez dio mesederik egin edo agian kaltetua aterata da. Hau da, aberastasunaren banaketa okerrago egin da eta kaltetuen langileak aterata dira, are gehiago behe mailakoak. Thomas Pikettyk *Le capital au XXI siècle* (Kapitala XXI. mendean) liburu ezagunean argi utzi duenez, pastelaren zatiketan kapitalaren zatia handitu da eta horrek batzuen diru-sarreraren handitzea ekarri du, eta lanaren zatia txikitu egin da. Horren ondorioz, aberastasuna %10 aberatsenaren artean handitu da nagusiki, eta bereziki %1 aberatsenen artean.

Ezkerreko sektore batzuek eta sindikatu klasikoek zera argudiatu izan dute: “Orduan, langile klasean pobrezia handitzen bada eta lansariak beherantz badoaz, zertarako gonbidatu behar dira lanera kanpoko milioika pertsona, lansari merkeagoekin kontratatatu kopuruak eta soldatak are eta gehiago jaitsiko dituztenak?” (Bernie Sanders AEBetako lider demokratikoa 2007an esana).

MITOA DESEGITEN

Migrazio prozesu handiak izan diren garai eta lekuetako kasuak aztertuta, frogatu da etorkinen sarrerak ez zuela eraginik izan harrera herrialde-

tako lanpostuetan edo soldatetan. Honakoak dira ikertuak izan diren migrazio horietako batzuk: 1980an *marietoak* Kubatik Miamiara joan zirenean; 1962an ia milioi bat kolono frantsesen itzulera Aljeriatik Frantziara; 1989tik aurrera milioi bat herritar joan ziren Errusiatik Israelera; edota Berlingo Harresiaren erortaren ondoren Alemaniako ekialdetik mendebaldera izandako migrazio prozesu handia.



**AEB-ETAN 1980KO
HAMARKADAN URTERO
MILIOI BAT ETORKINI EMAN
ZITZAIEN BEHIN-BEHINEKOZ
LAN EGITEKO BAIMENA;
1990EKO HAMARKADAN
HIRU MILIOI PERTSONA
ZIREN URTEKO; ETA 2019KO
URTEAN, ZAZPI MILIOI
PERTSONARI EMAN ZITZAIEN
LANERAKO BAIMEN HORI**

Horrek ez du esan nahi ez dagoen eraginik lanpostu eta soldatetan, baina ez da handia, eta izaten denean batez ere gertatzen da kualifikazio txikieneko lanpostuetan, non oro har beste immigrante batzuk aritzen diren lanean, beraz lehiarik izatekotan etorkinen artekoa da. Baina, funtsean, migrazio prozesuak ez dira horren garrantzitsuak ekonomian. Bai, lan segurtasuna ahuldu egin da, eta gazteak gero eta lan prekarioagoak onartu beharrean dira, baina ez immigrazioaren erruz. Bestelako erabaki politikoek desarautu dituzte lan merkatuak, edo sindikatuak ahuldu, lansariak murriztu eta soldaten desberdintasuna handitu.

9. MITOA:

IMMIGRAZIOAK ONGIZATE ESTATUA HIGATZEN DU

Kontrolik gabeko immigrazioak gero eta presio handiagoa eragiten du osasun sisteman, hezkuntzan edota etxebizitzaren merkatuan. Etorkinak sarritan ikusten dira “ongizate estatuaren aprobetxategi” moduan. Eta hori gertatzen da gehiago kualifikazio txikiagoa duten immigratzaileekin, gehiagotan gelditzen direlako lan gabe eta gehiagotan baliatzen direlako ongizate estatuaren abantailaz. Beraz, gutxitu behar da immigrazioa eta, bereziki, kualifikazio txikia duena.

MITOA DESEGITEN

Badira zerbitzu sozialen eta dirulaguntza publikoen menpekotasun handia duten kualifikazio txikiko immigratzaile eta errefuxiatu multzoak, baina horrek ekonomian duen pisua oso txikia da, eta ezin da esan, inolaz ere ez, horregatik ongizate gizartea higitzen duela. Ez dago hori sostengatzen duen inongo datu edo ikerketarik. Ikerketa ekonomiko guztien arabera, immigrazioak ez du eraginik oreka fiskalean.

Ongizate estatu indartsuak immigrazioa erakartzen duela uste da eta eztabaida handiak egon dira horren inguruan, baina ez dago argitasunik gaiaren bueltan. Migratzaileak ateratzen dira euren herrialdeetatik nagusiki lan egiteko, ikasteko edo beren familiarekin elkartzeko, ez dirulaguntzetatik bizitzeko; horren adierazle eta azterketak oso ugariak dira. AEBetan, esaterako, oso fenomeno bitxia gertatzen da: etorkin gaitzetsienak, hau da, legez kanpokoak, estatuaren zergadun handienak dira, horietako milioika langilek zergak ordaintzen dituztelako, baina ez dutelako jasotzen gizarte segurantzaren zerbitzurik. Ez, ez da immigrazioa etxebizitza krisia eta zerbitzu sozialen gainbehera ekarri duena, austeritatea baino. Egia zera da, mi-

gratzaileak giltzarri direla ongizate estatuari eusteko, besteak beste, osasun zerbitzuak langilez hornitzen dituzte, eta haurrak eta adineko pertsonak zaintzen dituzte.

10. MITOA: ETORKINEN INTEGRAZIOAK PORROT EGIN DU

Gero eta hedatuagoa dago AEBetan eta, bereziki, Europan: etorkinak ez dira gure gizarteetan integratzen eta multikulturalismoak porrot egin du. Nondik dator ikuspegi hori? Bada, bertako herritarrentzat etorkinekiko kezka ez datorrelako haiek gizartearen izango duten eragin ekonomikotik, baizik eta izan ditzaketan ondorio sozial eta kulturaletatik. Askotarikotasun handiena dago eta horrek presioa egiten dio kohesio sozialari. 2010ean Alemaniako lehendakari Angela Merkelek hitzaldi gogorra egin zuen multikulturalismoak erabateko porrota egin zuela esanda; laster izan zituen atzean David Cameron eta Nicolas Sarkozy, hurrenez hurren britainiar eta frantziar mandatariak. AEBetan, garai batean beldur ziren alemaniarrek, irlandarrek, italiarrek, poloniarrek, juduek, txinatarrek eta japoniarrek nazio

amerikarra kolokan jar zezaketelako. Beldur horiek urtu ziren, baina azken hamarkadetan mamua osterara piztu da, orain mexikarren eta Hegoaldeko eta Erdialdeko Ameriketako herritarren immigrazioagatik.

MITOA DESEGITEN

Epe luzera etorkinen integrazioa nahiko arrakastatsua da. Etorkinen seme-alaben eta biloben harrera hizkuntzarekiko gaitasun linguistikoei, hezkuntzari, enpleguari eta diru-sarrerari begiratzen badiegu, lorpenak oso handiak dira. Hobekuntza handienak hizkuntzan eta hezkuntzan ikusten dira, eta oraindik ere zailtasunik handienak lanerako kontratazioetan daude, ikerketa askoren arabera, arraza diskriminazioa oraindik ere integratiorako eragozpen handia baita. Herrialdeen arabera ere badira desberdintasun handiak: Alemanian eta Espainian, adibidez, lan merkatuan arraza diskriminazioa txikiagoa da, eta Frantzia eta Suedia handiagoa.

Eskuarki immigratzaileak denborekin ondo integratzen dira herrialdean, baina haien artean gutxiengo batek baditu arazoak ere, eta ondorioz, bazterketa luzeak pairatzen ditu. Denak adierazten du, oro

har, oztoporik jartzen ez bazaie, etorkinek euren integrazio bidea egiten dutela apurka; herritartasuna ematea da integrazio politikaririk eraginkorrena. Azken finean, multikulturalismoaren inguruko debatea gehiago da “gure” kezka, “haien” kezka baino. Egia zera da, ohartu orduko belar-naldi gutxi batzuetan “haiek” “gu” bihurtu direla. Izan ere, immigrazioak oso gutxi aldatzen ditu harrera herrialdeetako sakoneko egitura kulturalak, politikoak edo ekonomikoak.

11. MITOA: MIGRAZIO MASIBOAK BAZTERKETA MASIBOA EKARRI DU

Oro har, Mendebaldeko herrialdeak beldur dira migrazio masiboaren ondorioz euren hirietan ghettoak sortzearekin. Herrialde askotan aski zabaldua dago eskala handiko immigrazioak klase baxuko auzo handiak sortu dituela, non pobrezia eta bazterketa ezaugarri nagusiak diren; horiek langabezia-tasa handiak dituzte eta ongizate estatuarekiko menpekotasun handia. Immigrazio komunitateak zenbat eta itxiagoak izan, disfuntzio sozialak, delinkuentzia eta fundamentalismo erlijiosoa gero eta handiagoak izango dira.



AEBETAKO GOBERNUA

Etorkinek dirutzak bidaltzen dizkiete euren familiei eta diru hori ez doa gobernu edo beste erakunde batzuetara, behar handiena duten herritarren artean banatzen da. Argazkian, migratzaileak lanean AEBetako soroetan.

MITOA DESEGITEN

Badira salbuespenak, baina oro har, bazterketa maila ez da neurritz kanpoko. Ikusi dugun moduan, immigrazioak integrazioarako bidea bilatzen du epe luzera, baina horrek ez du esan nahi ez daudenik gutxiengo migratzaile batzuk egoera estuagoan. Eta ezin da ukatu, halaber, Europako eta AEBetako immigratzaileen auzo batzuk bihurtu direla pobrezia eta desabantailaren guneak. Hala ere, datu eta ikerketa askok erakusten dute hori ez dela etorkinen egoera orokorra.

Adibidez, AEBetako immigranteen bazterketa maila Europan baino handiagoa izan ohi da, Erresuma Batuan kontinentean baino handiagoa, eta Frantziako *banlieue*-ei buruz asko hitz egiten da, eta badira, baina Frantziako hirietako batez besteko bazterketa Europako baxuenetakoa izaten da. Horrez gain, bereizi behar dira ghettoak eta gune etnikoak, lehenak bazterketaren erakusle dira, baina bigarrenak emantzipazio guneak dira immigranteentzat. Bazterketak oinarri asko baditu ere, ikerketek gero eta argiago erakusten dute ekonomiaren liberalizazioaren ondorioz desberdintasunek handitzen jarraitzen dutela eta, funtsean, arraza haustura dirudiena gero eta gehiago klase haustura dela.

12. MITOA: IMMIGRAZIOAK DELINKUENTZIA AREAGOTZEN DU

“Etorkinek drogak dakartzate, eta delinkuentzia. Bortxatzaileak dira. Eta pentsatzen dut batzuk pertsona onak ere izango direla”. Donald Trumpen 2016ko hauteskunde kanpainan esandakoa da. Eskuin muturra eta eskuineko buruzagien artean gisa horretako adierazpen asko bildu daitezke. 2010ean Mendebaldeko herrialdeetan egindako inkesta zabal baten arabera, herritarren erdiak uste du immigrazioak delinkuentzia areagotzen duela. Hiru laurdenak,

gainera, uste du legez kanpoko immigrazioak delinkuentzia-tasa are gehiago igotzen duela. Ikuspegi horretatik, immigrazioa gutxitzea giltzarri da krimen antolatuauren aurkako borrokan.

MITOA DESEGITEN

Oro har, immigrazioak kriminalitate biolentoa gutxitzen du. Gaiari buruz egindako ikerketa zabal eta onena AEBetan egin da (*Immigration and the changing nature of homicide in US cities, 1980-2010*, Immigrazioa eta hilketen izaera aldakorra AEBetako hirietan, 1980-2010). Bai horren, bai beste ikerketa gehien arabera, immigranteek autoktonoek baino delitu gutxiago egiten dituzte. Immigrazio kopuru handiak dituzten auzoak, haien antzerako beste batzuek baino kriminalitate eta biolentzia kopuru txikiagoak dituzte. Horrela, ikusten da Los Angeles, San Jose, Dallas edo Phoenixen kriminalitatea jaitsi egin dela immigrazio kopuru handiak izan dituztenean. Edo hala ulertzen da nola New York, El Paso edo San Diego, immigrazio handiko guneak, AEBetako beste hiri batzuk baino seguruagoak diren.

Europar egindako ikerketak sakabanatuagoak dira, baina egindakoe-tan Estatu Batuetako joerak nabarmentzen dira. 2021ean Europako 21 herrialde mailako ikerketa egin zen *-Journal of Integral Migration-* eta immigrazioa eta kriminalitatearen arteko erlaziorik ez zela ondorioztatu zen. Ingalaterran egindako antzeko beste ikerketan batean 1971 eta 2022 arteko joerak aztertu zituzten eta ondorio nagusietakoa zen immigrazio handiak dituzten auzoak seguruagoak direla. Horrez gain, argi ikusi zen gune etnikoetan *-*auzoko populazioaren %20-30 jatorri etniko berekoa da*-*, kriminalitatea asko jaisten dela. Gune horietan kontrol soziala, elkartasuna eta ekintzaitza handia izan ohi da.

Hala ere, immigrante minoria batzuetan badira arazoak dituzten

gazte talde marjinalak, eta horien artean delinkuentzia tasa handiak dira. Arazo hori ere hor dago, eta larria da, baina, batetik, ez da immigrazioan gertatzen denaren erakusgarri eta, bestetik, oso lotuta dago bazterketa ekonomikoarekin, arraza bazterketarekin eta iraupen luzeko langabeziarekin.

13. MITOA: EMIGRAZIOAK LANGILE KUALIFIKATUENEN IHESA DAKAR

“Herritar kualifikatuena ihesak etorkizuna zapuztu diezaieke herrialde txiroei”. Garapenerako NBEko Programaren 2007ko esaldi bat da eta nahiko barreiatuta dago han-hemenka, bereziki ezkerreko sektoreetan. Horren ondorioz, zabaldua dago langile kualifikatuena ihesak etorkizunetik gabe uzten dituela garapenean diren herrialdeak. Abdelmalek Sayad soziologo aljeriarrak dioen moduan, “immigrante guztiak dira emigrante”, baina Mendebaldean batez ere aztertzen da lehen zatiari dagokiona eta bigarrenak ez du halako garrantzirik. Orduan, nola ulertuko dugu egiazki migrazioa, bigarren zatia galtzen badugu?

MITOA DESEGITEN

Ez da justua ez egokia etorkinei beren jatorrizko herrialdeetako garapenearen errua bizkarreratzea. Eskulan kualifikatuaren ihesa badago, baina pentsatzen dena baino askoz txikiagoa da. Maroko, Mexiko, Turkia eta Filipinetako populazioaren %5-10 atzerrian dago, eta gutxiengoa dira eskulan kualifikatua. Egindako ikerketa baten arabera, emigrazio herrialdeen bi herenetan, immigrazioa jotako eskulan kualifikatua %10etik beherakoa zen. Saharatik hegoalderako Afrikan pertsona formatuena ihes hori %13ra iristen da eta Erdialdeko Amerikako %17ra. Eta leku batzuetan bai, arazoa larriagoa da, adibidez Jamaika, Barbuda edo Fiji irletan, non ihes hori %40-50 artean

dagoen. Oso zabalduta dago immigrazio kualifikatuak alde egiten duenean ez dela gehiago itzuliko, baina ez da egia, horietako asko euren herrialdeetara itzultzen baitira.

14. MITOA: **IMMIGRAZIOAK DENOI EGITEN DIGU MESEDE**

Bizi dugun ekonomia globalean immigratzaileak beharrezkoak dira lehiakortasunari eusteko. Immigratzaileek falta den eskulana asetzen dute ezinbestekoak diren ekonomia-aren hainbat esparrutan, baina horrez gain, ezagutza eta ideia berriak dakartzate, eta berrikuntza, produktibitatea eta hazkundera areagotzen dute. Diskurtso horrek badu indarra tradizionalki immigratzaileak jasotzen dituzten herrialdeetan, hala nola AEBak, Kanada, Australia eta Zeelanda Berria. 1989an AEBetako lehendakari Ronald Reaganek ikuspegi hori goraiatu zuen esan zuenean immigrazioa zela AEBen handitasunaren iturri nagusietakoa: "Noizbait atea itxiko bagenie estatubatuar berriei, laster batean galduko genuke lidergoa munduan". Zenbait ekonomialarientzat, ekonomia globalaren hazkunderaren gako nagusiak ez daude hainbeste ondasunen eta kapitalen mugikortasunean, baizik eta langileen mugikortasunean. *Win-win-win* (hiru irabazleen) estrategia litzateke, migratzaileak, zein jatorrizko eta harrerako herrialdeak mesedetuko litzuzkeena.

MITOA DESEGITEN

Migrazioak ezin ditu mundu mailako desberdintasunak konpondu, baina lagundu dezake hobetzen egoera pertsonala, nazionala edo globala. Gakoa zera da, ea nola banatzen den sortutako aberastasuna jatorrizko eta harrerako herrialdeen artean, edo gizarte bakoitzeko herritar txiroenen eta aberatsenen artean. Argi dago immigrazioak harrera herrialdeen hazkundera bultzatzen duela,

baina ez dago hain argi immigratzaileek euren herrialdeetara itzultzen duten diruak herrialde haien garapen ekonomikoa bultzatzen duenik.

Immigrazioak batez ere aberatsenei egiten die mesede. Eragin gutxi du erdi mailako sarrera eta soldatetan, eta handiagoa aberatsenetan. Funtsean, azken horiek dituzte eskulanaren beharrea diren enpresak, diru gehien duten herritarrek inbertitzen dute enpresa horien akzioetan, eta haien zerbitzura izaten dira zaintza eta etxeko lanetan aritzen diren atzerriko langileak. Bertako langileek etekin gutxi jasotzen dute immigrazioetik.

15. MITOA: **IMMIGRANTEAK BEHARREZKOAK DIRA ZAHARKITUTAKO GIZARTEEN ARAZOAK KONPONTZEKO**

Gizarteen zahartzaroa mehatxu moduan ikusten da pentsio planen garpenerako eta, gainera, uste da horren ondorioz gero eta osasun sistema garestiagoa behar dela. Diru-sarrera handiak dituzten herrialde gehienek ugalkortasun tasa 2,1etik beherakoa da emakumeko, eta demografoen esanetan, hortik behera populazioak behera egiten du epe luzera. Beraz, adinekoen multzoa handitzen den heinean, mediku, erizain, sukaldari, garbitzaile eta etxeko langile gehiago beharko ditugu. Immigrazioa ezinbestekoa da biztanleria aktiboa behar adinakoa izan dadin pentsioei eta zerbitzu sozialei eusteko; eta bereziki, gero eta garrantzitsuagoa dirudi etorkizunean umeen, adinekoen eta gaixoen zaintzan aritzeko.

MITOA DESEGITEN

Herritarren artean nahiko sustraituta dago immigrazioak konpon ditzakeela gizartearen zahartzearen arazoak, baina ez da oso errealista. Immigrazioa oso urria da zahartzaroaren arazoa konpontzeko. Zahartzaroaren eragin demografikoak konpentsatzeko etorkin kopuru as-



MUGEN ESTUTZEAREN MESEDE GEHIEN JASOTZEN DUENA INDUSTRIA MILITARRA DA, ZEINAK MILAKA MILIOI EURO EDO DOLAR JASOTZEN DITUEN URTEZ URTE MUGEN KONTROLA BERMATU ETA AREAGOTZEKO

koz handiagoak beharko lirateke, ez liratekeenak ez onargarriak ez errealistak. Migratzaileak munduko populazioaren %3 bakarrik dira, eta harrera herrialdeetako biztanleen %10-15.

2000. urtean NBEko Populazioaren Dibisioak honako ikerketa argitaratu zuen *Ordezkatze migrazioa: irtenbidea da biztanleriaren gutxitzea eta zahartzearen aurrean?* Emaizak ezin zorrotzagoak ziren: immigrazioak ezin zuen arazo hori konpondu. Txosteneko adibide esanguratsu bat: Alemanian 2050ean egungo populazioa mantentzeko 324.000 etorkin beharko lirateke urtero –azken hamarkadetakoko kopuruak hor nonbait dabilta–, baina gizartea gaztetzeko 3,4 milioi pertsona beharko lirateke urtero.

Immigratzaileak ere zahartzen dira eta gainera, denborarekin, haiek ere seme-alaba gutxiago izateko joera dute. Gizarteen zahartzea herrialde garatuaren fenomeno demografikoa da nagusiki, baina gero eta gehiago zabaltzen ari da munduan. Industrializazioa, modernizazioa, hezkuntza eta emakumeen emantzipazioa giltzarri izan dira herrialde garatuaren ugalkortasun tasaren jaitsieran eta giltzarri izaten ari dira ere garapenean diren herrialdeetan. Nazioartean ere, bi umeko familiak, edo batekoak, gero eta ugariagoak dira. Alarma handia pizten da, baina agian ondorioak ez dira pentsatu bezain larriak.



DOMENIU PUBLICO

Gure gizarte aberats, zaharkitu eta formazio handikoek langile migratzaileak behar dituzten eredu ekonomikoak garatu dituzte.

MIGRAZIOAREN INGURUKO PROPAGANDA

16. MITOA: MUGAK IXTEN ARI DIRA

Immigrazio politikak gero eta murriztaileagoak dira. 1980ko hamarkadara arte gobernuek eskuak zabalik hartzen zituzten langileak, familiak eta errefuxiatuak. Geroago, aldiz, atek ixten eta baldintzak gogortzen hasi ziren, eta harrerako gobernuek gero eta gehiago jarduten dute jatorrizko herrialdeekin legez kanpoko emigrazioa saihesteko. Gero eta gehiago, herrialde garatuetakoa politikariek hizkuntza gogorra erabiltzen dute legez kanpoko etorkinen kontra, eta gero eta zorrotzago mintzatzen dira eskulan kualifikatuaren sarreraren aurka.

MITOA DESEGITEN

Gauza bat dira diskurtsoak eta besteak beste datuak. Sakon aztertu ditugu Bigarren Mundu Gerraren aurretik eta ondoren Europarantz izan diren fluxu migratzaileak, eta ondorioak

argiak dira. Garaiko ezaugarri nagusien ondorioz –protektionismoa, nazionalismoa eta autoritarismoa– XX. mendeko erdialdera arte etorkinen aurkako politika oso zorrotzak izan ziren. Baina mundu gerraren ondorengo zazpi hamarkadetan mugak irekitzeko joera eta politika zabalak izan dira. 1990etik aurrera apur bat estutu ziren harrera baldintzak, baina oraindik ehunka mila migratzaile datoz eta errotzen dira Europan, bertako herrialdeetako herritartasuna lortuta. Giza eskubideen aurrerapenak, ekonomiaren beharrek eta, besteak beste, enpresariaren presioek akuilatzen dituzte atek irekitzeko politika horiek.

Orokorrean etorkinek lortzen dute lan egitea, eta gehienetan legez, askotan behin-behineko baimenekin. AEBetako datu hauek aski esanguratsuak dira: 1980ko hamarkadan urtero milioi bat etorkini eman zitzairen behin-behineko lan egiteko baimena; 1990eko hamarkadan hiru milioi pertsona ziren urteko; eta 2019ko urtean, zazpi milioi pertsonari eman zitzairen lanerako baimen hori.

17. MITOA: KONTSERBADOREAK GOGORRAGOAK DIRA IMMIGRAZIOAREKIN

Jende gehienak uste du ezkerreko politikariak, liberalak, immigrazioaren aldekoagoak direla eta eskuinekoak, kontserbadoreak, aurkakoagoak. Herriarren artean ere, bere burua ezkerrean ikusten duena immigrazioaren aldekoagoa da eta eskuinekoa gutxiago, bereziki etorkinak beste erlijio batzuetakoak direnean. Debatea horretan oinarritzen da askotan, eta he-dabideek ere elikatzen dute banaketa eta eztabaida hori.

MITOA DESEGITEN

Banaketa sinplista da hori. Askotan talde kontserbadoreetatik gertuago dauden enpresariak dira immigrazioaren aldeko politikak egin daitezkeen gehien presionatzen dutenak. Eta sindikatuek sarri-sarri atzerriko langile berrien kontratazioaren aurrean oztupoak jarri ohi dituzte. Hori bai, etorkina behin langile bihurtuta, sindikatuek zorrotz de-



ARGIA CC BY SA

Ez da orokorra, baina badira etorkin multzoak egoera latzean bizi direnak, bazterkeria eta xenofobia pairatuz. Argazkian, errumaniar kanpamentu bat Astigarragan (Gipuzkoa).



DANI BLANCO CC BY SA

2017ko Eurobarometroaren arabera, etorkinen eragina gizartean positiboa zen herritarren %54arentzat; %29ak ez zuen ez aldeko ez aurkako jarrerarik etorkinekiko; eta %17aren iritzia aurkakoa zen.

fendatzen dituzte haien lan esku-bideak. DEMIG proiektua erabilia Mendebaldeko gobernuak 1975 eta 2012 artean erabilitako migrazio politikak eta datuak aztertu ziren, eta zera zioten: bai, ezkerreko gobernuak jarrera pixka bat zabalagoa zuten etorkinei herritartasuna edota eskubideak ematean, baina desberdintasunak oso txikiak dira. Eta etorkinen sarrera araei buruz, ez

zegoen desberdintasunak batzuen eta besteen artean.

Funtsean, hazkunde ekonomikoak eta eskulanaren beharrak akuilatzen dute immigrazioa, eta ekonomia atzeraldietan immigrazioa jaisten da. Ikerketek, halaber, erakusten dute bai alderdi kontserbadoreetan, bai sindikatuetan jarrera kontrajarriak daudela immigrazioarekiko. Azken 30 urteetan eskuin muturrak lortu du

immigrazioaren politikak bahitzea, nagusiki gainerako alderdiei beldur eman izan dielako gai horretan ahulegi agertzeak.

18. MITOA: IRITZI PUBLIKOA IMMIGRAZIOAREN AURKA JARRI DA

Hamarkadetan, politikari populistek edota eskuin muturrekoek argudio hori erabili izan dute: immigrazioaren aurkako politikak egin behar dira, herritarren gehiengoak hala nahi duelako. Hauteskunde garaietan, gainera, indarra duen diskurtsoa da. Giza eskubideen aldeko aktibisten artean ere sustraituta dago mezua.

MITOA DESEGITEN

Behin eta berriro egin diren inkestak aztertuta ez da ikusten iritzi publikoa immigrazioaren aurkakoa denik. Kezkaz jarraitzen den gaia da, baina batez ere ziklo ekonomikoen arabekoa da, eta oro har, herritarrak immigrazioaren aldekoagoak eta xenofobiaren aurkakoagoak dira. 2017an immigrazioa landu zuen Eurobarometroaren arabera, adibidez, etorkinen eragina gizartean positiboa zen herritarren %54arentzat; %29ak ez zuen ez aldeko ez aurkako jarrerarik etorkinekiko; eta %17aren iritzia aurkakoa zen. Immigrazio handiagoga dagoen herrialdetan arrazakeria jaitzi egiten da.

19. ETA 20. MITOAK: PERTSONEN TRAFIKOAK DAKAR LEGEZ KANPOKO IMMIGRAZIOA. MUGETAKO ERAGOZPENEK IMMIGRAZIOA GUTXITZEN DUTE

Legez kanpoko migratzaileak saldoka datoz pateretan, hesien gainetik edo basamortu eta mendiak gurutzatuz, bidaia oso arriskutsuak eginda, eta diru gosez eta gupidagabeak diren pertsonen trafikatzailleek gidatuta. Gobernuak hesi gero eta garaiagoak altxatuta, eta mugak eta itsasoak gero eta gehiago kontrolatuta erantzun

behar izan diote egoera larri horri. Etorkinentzat bidaia luzeagoa, zailagoa eta garestiagoa denez, gutxiago etorriko dira.

MITOA DESEGITEN

Migratzaile askok gorriak pasatzen dituzte harrera herrialdeetara iristeko, hori egia borobila da, eta migratzaile molde hori etorkinen artean gutxiengoa izateak ez dio inongo larritasunik kentzen arazoari. Politikariek eta nazioarteko erakundeek sinetsarazten dute trafikatzailerak direla etorkinen sufrimenduaren errudun, eta aipatu dugu hori ere badagoela, baina oinarritzekoena zera da: etorkinen trafikoa immigrazioari jarritako oztopo eta hesien ondorioa da. Azken buruan, mugen militarizazioak behartzen ditu etorkinak bidaia luzeagoak, arrisku-tsuagoak eta garestiagoak egitera, baina migrazio fluxuek euren bideak topatzen dituzte.

Europar 1991n hasi zen itsasontzien immigrazio hori, Schengen Akordioaren ondorioz, Espainia eta Italia euren herrialdeetara sartzeko bisa baldintza moduan eskatzen hasi zirenean. Ordura arte, marokorarrak, libiarrak eta tunisiarrak libre sartzzen ziren herrialde horietara eta horrek migrazio zirkularra bultzatzen zuen, beharrezan arabera sartzzen ziren lanera eta atera ere bai. Horrela, ez zituzten familia osoak ekarri behar, eta migratzaile kopurua txikiagoa zen.

Mugak ixtearekin, lanean ari diren etorkinek gero eta gehiago ekartzen dituzte euren familiak ere. Batetik, ez dira horrenbeste itzultzen eurenera, gero bueltan sartzeko arazoak izango dituzten beldur; bestetik, familiak sartzzen dituzte gero egoera gogortzen bada agian ezingo dutelako. Zer gertatzen da horrela? Immigrazio zirkularra bultzatzen denean eta baimenak denbora batekoak direnean, joan-etorria bultzatzen dute, etorkin asko dabil atzera aurrera, ziklo ekonomikoaren arabera,

baina mugak ixtean zirkulazio hori eten egiten da, eta horrek harrera herrialdeetako etorkin kopurua handitzen du. AEBetan ere antzerako egoerak gertatzen dira. Herrialdeetako barne migrazioan –munduan garrantzitsuena den migrazio moldean–, migrazio zirkular hori da nagusi eta horrek joan-etorriko fluxu handia sortzen du.

Mugen militarizazio horrek ez du lortzen etorkinak ez etortzea, baina behartzen ditu askoz baldintza zailagoetan etortzen, eta estutze horren mesede gehien jasotzen duena industria militarra da, zeinak milaka milioi euro edo dolar jasotzen dituen urtez urte mugen kontrola bermatu eta areagotzeko.

21. MITOA:

PERTSONEN SALEROSKETA GAUR EGUNGO ESKLABOTZA MOTA DA

Mendebaldeko hedabideek eta erakundeek zabaltzen duten mezuagatik, iritzi publikoan oso hedatua dago esklabotza oso zabalduta dagoela munduan. *The Guardian*-ek, adibidez, 2019an zabaldu zuen esklabotza modernoak Atlantikoko beltzen esklabotza hirukoizten duela. Esklabotza hori legez kanpoko immigrazioarekin lotzen da askotan.

MITOA DESEGITEN

Pertsonen trafikoa eta esklabotza ez dira berdinak, herrialde garatuetan esplotatuak diren etorkin asko –baita sexu langileak ere– euren kabuz datoz, libreki, hemen esplotatuak izanda ere, euren herrialdeetan baino gehiago irabazten dutelako. Bidaia ordaintzeko asko erabiltzen da zorra, baina hori ez da esklabotza; alabaina, egia da sarritan ez dela samurra bata eta bestearen arteko mugak non dauden finkatzea. Kapitulu zabala da eta irakurlea orientatzeko, hemen kapitulu honek dituen azpitituluetakoz: Sexu langile gehienak modu boluntarioan ari dira lanean / Erreskateak, funtsean deportazioa dakar

etorkinentzat / Kopuruak puzteak ez ditu arazoak konpontzen, larritu baizik / Aska nazazue askatzen gaituztenetatik.

22. MITOA:

ALDAKETA KLIMATIKOAK MIGRAZIO MASIBOA EKARRIKO DU

“Migrazio klimatiko erraldoia hasita dago” edo “Krisi klimatikoak 1.200 milioi pertsona lekualdatu dezake 2050era arte” moduko tituluak ohikoak bihurtzen hasi dira komunikabideetan. Politikari, aktibista edota erakunde askoren eledunen artean ere entzun daitezke gisa horretakoak. Ikuspegi horretatik, aldaketa klimatikoari CO2aren murrizketarekin aurre egitea ezinbestekoa da errefuxiatuen uholde batek Mendebaldeko herrialdeak har ez ditzan.

MITOA DESEGITEN

Aldaketa klimatikoa egiazkoa da, eta ekarriko ditu ondorio latzak bizimoduetara edota planetaren ekosistemetara. Itzulera gabeko egoerak gerta daitezke. Baina migrazioei buruzko datu apokaliptiko horiek ez dute oinarri enpirikorik eta aurreiritzi sinpleetan oinarritzen dira. Besteak beste, badira bost arrazoi horiek zalantzan jartzeko. Bat, klima aldaketa geldoa da, eta herritarrei horietara egokitzeko denbora ematen die. Bi, jendeak jo dezake hainbat defentsa estrategiatara: dikeak eraiki, mendixkak, drainatzeak, uzta gogoragoak sortu... Hiru, hondamendiak direnean, jendeak nagusiki gertuko lekuetara jotzen du. Lau, leku aldaketa horiek ohikoan behin-behinekoak dira. Eta bost, txiroenek ez dute distantzia handiak egiteko baliabiderik.

Gobernuek lekualdatzen dute jendea, ez klimak, eta norbaitekin arduratu beharko bagina mugitzeko aukerarik ez duten herritar txiroenekin izan beharko litzateke. Kontakizunaren ikuspegitik, ardura kliman jartzeko laguntzen du gobernuen erantzukizuna zurrizten. ●

Migrazio politika hiltzaile eta bidegabeen aurrean, herritar guztientzako eskubide berak eta bizi-baldintza duinak nahi ditugulako.

Inorezdailegala euskaraz eta wolofez aldarrikatzen duten kamiseta, jertse, poltsa, sudadera, petatxoa... hauek guztien salmentarekin ekarpen ekonomikoa egingo diogu Bilboko Mbolo Moyo Doole elkarteari. Migratzailez osatutako elkarte da Mbolo, batik bat Senegaldik etorriak. Kale salmentan aritzen dira, bestelako proiektu eta asmoak baztertu gabe.

inorezdailegala.eus

Amul been nit ku leegalul



 ARGIA

Bouba Diouf

Mbolo Moyo Doole elkarteko kidea

